

# **AURREKONTU IREKIAK**

## **2022-2023**

**TXOSTEN EXEKUTIBOA**  
**TXOSTEN EXEKUTIBOA**



**GIPUZKOA**  
**ETORKIZUNA**  
**ORAIN**

## AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	3
1. AURREKONTU IREKIAK 2022-2023 PARTAIDETZA-PROZESUAREN ARTIKULAZIOA.....	5
1.1 PROZESUAREN FASEAK ETA EGUTEGIA.....	5
1.2 PROZESUA SOZIALIZATZEKO KANALAK .....	7
1.2.1 Hedabideetan eta sare sozialetan hedatzea. ....	7
1.2.2. Galde-sortak eta informazio liburuxkak postontzietan banatzea frankeo ordainduarekin.....	8
1.2.3. Partaidetza birtuala .....	9
1.3 ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI? .....	10
1.4 AURREKONTU IREKIAK 2022-2023 PROZESUAREN BERRITASUNAK.....	11
2. METODOLOGIA.....	13
2.1. PARTAIDETZA-MAILAREN ANALISIA.....	13
2.2 IREKIAN EGINDAKO EKARPENEN ANALISIA .....	13
2.3 FITXA TEKNIKO.....	14
3. EMAITZAK .....	15
3.1 PARTAIDETZA-EMAITZAK .....	15
3.1.1. Partaidetza, generoaren arabera .....	17
3.1.2. Histograma .....	18
3.1.3. Eremu geografikoa .....	19
3.1.4. Emaitzak.....	20
4. KONKLUSIOAK.....	26

## 0. SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2019-2023 agintaldi planaren esparruan, Aurrekontu Irekiak programaren etapa horretarako azken partaidetza-prozesua gauzatzen ari da.

Eraldaketa sozio-ekonomikoaren aurrean, ez bakarrik lurralde mailan, baita bizi garen maila globalean ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak lanean jarraitzen du elkarlaneko gobernantzako eredu ireki berri bat pixkanaka ezartzeko, berekin dakarrena paradigma-aldaketa bat bere kudeaketan, eta herritarren inplikazioa areagotzea, sortzen ari diren erronka eta premiei aurre egiteko.

Hurrengo lerroetan zehazten dira 2021eko abenduan hasi zen eta 2023ko ekitaldian luzatuko den Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuaren xehetasunak.

Orain arte landutakoarekin bat etorritz, Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuak berrietasunak ekarri ditu, helburutzat dutenak iritzi publikoari protagonismo eta pisu handiagoa ematea erabakiak hartzeari dagokionez, eta herritarren partaidetza errazten duten mugariak zabaltzea, prozesua diseinatzen denetik ebaluazioaren azken faseraino.

Txosten honetan, prozesuaren mugariak eta faseak biltzen dira, eta herritarren partaidetzako **lehen fasean** lortutako emaitzak aurkezten dira, gobernantza irekiaren eta elkarlanekoaren eredua arautzen duten printzipioekin bat etorritz, eredu horren gainean oinarritzen baita Foru Aldundiaren kudeaketa, lurraldearen etorkizuna modu partekatuan eraikitzearen aldeko bere apustuan.

Txostenari hasiera emateko, **partaidetza-prozesuaren garapena** nola antolatzen den deskribatzen da. Ondoren, prozesuaren analisiaren oinarri den **metodologia** azaltzen da. Eta, amaitzeko, partaidetza-prozesuaren lehen fasearen esparruan **lortutako emaitzak** aurkezten dira.

Txosten honetan irudiz hornitutako partaidetza-prozesuaren emaitzek jarraitu diete azterlan sozial eta estatistikoen berezko kalitate-estandarrei, emaitzen egiazkotasuna eta fidagarritasuna bermatuz, baita datuak eta anonimotasun nahiz konfidentzialtasun bermeak zorrotz zainduz ere, hala agintzen baitute, alde batetik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, eta bestetik, 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalak Babestekoak eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak.

# 1. AURREKONTU IREKIAK 2022-2023

## PARTAIDETZA-PROZESUAREN ARTIKULAZIOA


### 1.1 PROZESUAREN FASEAK ETA EGUTEGIA

---

Aurreko ekitaldietan bezala, aurten ere Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetza-prozesu berri bat jarri du abian, herritarren inplikazio- eta partaidetza-maila sendotu eta hobetzeko, lurraldearen egungo beharrei erantzungo dieten konponbideak identifikatzeari dagokionez.

2021eko abenduan, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiaren eskutik, abian jarri zen Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesua prestatzeko eta gauzatzeko makineria.

Prozesuaren irismena kontuan hartuta, prozesuaren xehetasun guztiak modu optimo batean bideratzeko, **jarduketa-protokoloa** idatzi zen, jarraian erakusten dena, non jasotzen diren mugarriak, datak eta haietako bakoitzean parte hartzen duten pertsonak eta organoak.



Aurreko edizioetan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako herritarren ikuspegia ezartzen du, kontrastatzeko eta aztertzeko, aldez aurretik ezarritako irizpide batzuen arabera.

Aurrekontu Irekiak 2022-2023 bideratzeko partaidetza-prozesua, prozesu landu eta bermatzaile baten bidez gauzatzen da, zeinak biltzen baitu herritarrekiko komunikaziorako eta publizitate aktiborako estrategia bat, bai eta Lurralde Historikoaren beharretara egokitzen diren epe batzuen ezarpena ere.

Era berean, prozesuak modu integralean erantzun nahi die proposatutako ekimenei, ahalik eta koherentziarik eta gardentasunik handienarekin, herritarrei arreta emateko kanal presentzialak nahiz birtualak eta parte hartzekoak sortuz, erantzun eraginkor bat ematearren Gipuzkoako herritarren egunerokotasunean eragina duten beharrei.

Aurrekontu Irekiak prozesua da, azken batean, herritarren partaidetza-prozesu bat, planteatzen duena metodologia bat, etengabe egokitzen ari dena, zeinak bilatzen baitu erantzun egoki bat ematea, benetako beharretara egokitua, irizpideen formulazio berri bat sartuz, herritarren partaidetza eta ahalduntzea hobetzeko.

## 1.2 PROZESUA SOZIALIZATZEKO KANALAK

---

Komunikazio estrategia hainbat kanaletatik bideratu da, eta, horrela bermatu da prozesua ahalik eta gehiena zabaltzea, hedatzea, eta sozializatzea:

- Galde-sortak eta informazio liburuxkak postontzietan banatzea frankeo ordainduarekin.
- Online partaidetza.

### 1.2.1 Zabalkundea hedabideetan

Gobernantza Departamentuak, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusia buru dela, prozesuaren gizarteratze aktiboaren aldeko apustua egin du, ekimena prentsan zabalduz.

Gainera, 2022ko apirilaren 22an, prentsaurreko bat egin zen prozesua aurkezteko, non parte hartu zuen Gobernanzako diputatu Eider Mendozak, lagun zuela Herritarren Partaidetzako zuzendari Mikel Pagola.





### Informazio liburuxka



Aldi berean, telefono linea iraunkor bat prestatu zen, bai parte hartu nahi zuen edozein herritarri euskarria emateko, bai prozesuaren inguruan sortutako zalantzak argitzeko.

Jarraian zehazten dira partaidetza presentzialerako prestatutako kanalak:

- **Ohiko posta.** Helmugan frankeoa ordainduta duten txartel handiak bidaltzea.
- Proposamenak **erregistratzea** Foru Aldundiaren eta udalen informazio bulegoetan.
- Proposamenak jasotzea **informazio saioetan**.

### 1.2.3. Partaidetza birtuala

Era berean, prozesuaren komunikazio-, hedapen- eta partaidetza-estrategiaren parte gisa, eta orain arte ezarritako metodologiari jarraikiz, kanal telematikoak gaitu dira partaidetza ahalbidetzeko.

- **Webgunea:** <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza>, parte hartzeko galde-sortarekin eta prozesuari buruzko informazio hedatuarekin.
- **QR kodea,** inprimatutako dokumentuetan emana.

### 1.3. ZER GALDETU ZAIE HERRITARREI?

Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuko herritarren partaidetzako lehen fasean, zeina aktibo egon baitzen apirilaren 25etik maiatzaren 20ra bitartean, galdera bat egin zitzaion 16 urtetik gorako pertsona guztiei.

**Zein da zure ideia / proposamena Aurrekontu Irekiak 2022-2023rako eta zein beharri erantzuten die?**

**Ideiaren / proposamenaren deskribapen laburra**

Beste edizio batzuetan ez bezala, eta herritarrek aurkeztutako proposamenak zehazten laguntzeko, aurtun 10 jarduera-eremu planteatu dira, zeintzuetan kokatu behar baitzituzten parte-hartzaileek beren proposamenak:

- **Ekonomia, enplegua eta turismoa**
- **Kultura eta aisia**
- **Gizarte politikak: haurrak eta gizarte inklusioa, adinekoak, desgaitasuna eta zainketak**
- **Mugikortasuna eta garraioa**
- **Ingurumena**
- **Landa eremua eta mendiak**
- **Euskara**
- **Berdintasuna eta aniztasuna**
- **Gazteria eta kirolak**
- **Bide azpiegiturak**

**Parte hartzeko baldintzak:**

16 urte baino gehiago izatea, eta baldintza horiek egiaztatzeko behar diren datuak ematea. Prozesuaren fase horretan, pertsona bakoitzak nahi adina aldiz parte har dezakeen, horretarako prestatutako kanal desberdinen bitartez.

Herritarrek parte hartzeko epea amaitu ondoren, proposamenak Foru Aldundiko lantalde teknikoak aztertu zituen.

Teknikoki egiaztatu zen proposamenek betetzen zituztela protokoloan ezarritako baldintzak, eta gero, zuzendaritzetara bidali ziren, zeintzuen ardurapean baitago Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuaren 2. fasean herritarrek hauta zitzaketen proiektuak sortzea.

Behin zuzendaritzek zehazten dituztenean herritarrek baloratu ahal izango dituzten proiektuak, lan saio bat egingo da Gipuzkoako Partaidetzarako Gizarte Kontseiluarekin, haien kontrastea, jarraipena eta balorazioa egin ditzan.

#### 1.4. AURREKONTU IREKIAK 2022-2023 PROZESUAREN BERRITASUNAK

---

- COVID osteko egoerak ekarritako normaltasun berriaren ondorioz, aurten, berriro hartu dira **saioak** Gipuzkoako gizarteko **hainbat motatako kolektibo eta erakundeekin**.

Guztira, 5 saio presentzial egin dira, Eider Mendoza eta Mikel Pagola buru zirela, udalerrri bakoitzeko toki-administrazioaren ordezkari banarekin batera, herri hauetan:

- **Zarautz**: maiatzaren 11n, Zarauzko Udaletxeko osoko bilkuren aretoan.  
*Gaia: "Urola Kostako gazteria eta elkarte sarea".*  
*Parte-hartzaileak*: norbanako gisa bertaratuak.  
*Toki-administrazioaren ordezkaria*: Xabier Txurruka, Zarauzko alkatea.
- **Eibar**: maiatzaren 12an, Errebal plazan.  
*Gaia: "Gure adinekoen zaintza eta hirugarren adina".*  
*Parte-hartzaileak*: hirugarren adinekoen elkarteak.  
*Toki-administrazioaren ordezkaria*: Ana Telleria, Eibarko Udaleko zinegotzia.
- **Tolosa**: maiatzaren 16an, Tolosako kultura-aretoan, Triangelu plazan.  
*Gaia: "Euskara eta elkarte sarea".*  
*Parte-hartzaileak*: gazte elkarteak.  
*Toki-administrazioaren ordezkaria*: Joseba Ormazabal, Tolosako zinegotzia, euskara teknikaria.
- **Irun**: maiatzaren 17an, Amaya kultura-etxean.

*Gaia:* “**Aniztasuna eta kultura-aniztasuna**”.

*Parte-hartzaileak:* elkarteak.

*Toki-administrazioaren ordezkaria:* ordezkariarik gabe.

- **Donostia:** maiatzaren 18an, GUNEAN.

*Gaia:* “**Aurrekontu irekien informazioa**”.

*Parte-hartzaileak:* herritar guztientzat irekia.

*Toki-administrazioaren ordezkaria:* ordezkariarik gabe.

- **Lantalde teknikoa eratzea** Aurrekontu Irekiak prozesua kudeatzeko. Lantalde hori arduratzen da prozesuaren baldintzak eta irizpide teknikoak ezartzeaz eta haren jarraipena egiteaz.
- Aurrekontu Irekiak **komunikazio lantaldea eratzea**, prozesuaren lurraldeko zabalkundea kudeatzeko.
- Edizio honetan, herritarren proposamen bakoitzari **identifikazio zenbaki elkartu** bana erantsi zaio, zeinaren bidez parte-hartzaileak bere proposamenaren egoeraren jarraipena egin baitezake, eta jakin ahal izango du proposamena zertan amaitzen den (baztertua, kontuan hartua, beste batzuekin elkartua, proiekturako ekarpena...), eta horrek bermatuko du partaidetza-prozesuaren trazabilitatea.

## 2. METODOLOGIA

Ikuspegi metodologikoa bat dator datu estatistikoak analizatzeko erabili ohi diren ikerketa-teknika kualitatibo eta kuantitatiboekin. Horretarako, aplikatu diren kalkulu estatistikoek emaitzen izaera zehazten dute, lurraldean adierazgarria den lagin baterako.

### 2.1. PARTAIDETZA-MAILAREN ANALISIA

---

Laginaren tamaina osatuta dago hura bete duten parte-hartzaileen guztizko kopuruaz, hau da, Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuan gaitutako kanalen bidez galde-sorta behar bezala bete dutenenaz osatuta. Bereizitako modu batean, adierazle eta aldagai hauen arabera hartuko da kontuan partaidetza:

- Online parte-hartzaileen kopurua, liburuxka paperezko euskarrian bidali duten parte-hartzaileen kopuruaren aldean.
- Generoaren arabera analisi, gizonen eta emakumeen partaidetzaren arabera.
- Laginaren batez besteko adina.
- Partaidetzaren jatorrizko herria.

**Ohar metodologikoa:** Emaitza horiek aurkitzeko, iragazi egingo dira lortutako datuak (presentziala edo online). Era berean, histograma bat egingo da adinaren banaketa islatzeko, eta laginaren banaketa geografikoa behatuko da.

### 2.2. IREKIAN EGINDAKO EKARPENEN ANALISIA

---

Herritarren ekarpenak partaidetza-prozesuaren protokoloan definitutako eremuetan kuantifikatu eta kodetu dira, halako eran ezen aukera egongo baita mapa kualitatibo bat egiteko, zeinak bilduko baititu parte hartu duen laginak egindako ekarpenak.


### 2.3. FITXA TEKNIKOA

---

- Unibertsoa: 626.228 (2021/01/01eko errolda, Gipuzkoan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonak. Iturria: Eustat) [322.759 emakume eta 303.767 gizon].
- Laginaren tamaina: prozesuan onartutako 1.530 pertsona eta 11 entitate.
- Metodoa: laginketa ez-probabilistikoa.
- Errore-marjina: 626.526 laguneko populazio batetik 1.530 pertsonako lagin bat hartuta,  $\pm\%$  2,49ko gehieneko errore-marjina lortzen da [erabilitako konfiantza-tartea % 95 da].
- Informazio bilketa: liburuxkak bidaliz eta erregistroa eta online bidea erabiliz egindako ekarpenak.
- Egin den data: 2022ko apirilaren 25etik maiatzaren 20ra.

### 3. EMAITZAK

#### 3.1 PARTAIDETZA-EMAITZAK




Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuko 1. fasearen esparruan, herritarren **2.398 galde-sorta/txartel handi bildu dira guztira**. Guztizko kopurutik, **1.880** izan dira **onartuak**, eta **518** geratu dira **prozesutik kanpo**, aldez aurretik ezarritako partaidetza-baldintzak ez betetzeagatik:

- Gutxieneko 16 urteko adina ez izatea
- Identifikatu beharrik gabeko inprimakia
- Ekarpenik gabeko inprimakiak, txartel handia bete gabe

Prozesuan onartutako 1.880 galde-sortak 1.541 pertsonak eta entitatek bidali dituzte.

Guztira, lagina osatzen dute prozesuan onartutako 1.541  
pertsonak eta entitatek

#### Partaidetza-kanala




Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuan berriro ikusten denez, herritarrek hautatu duten **partaidetza-kanal** nagusia **presentziala** izan da, % **87,7** (2.102 pertsona); aldiz, **online** (296 pertsona) partaidetza osoaren % **12,3** izan da.



### 3.1.1. Partaidetza, generoaren arabera

Parte-hartzaileek emandako datuei dagokienez, jarraian erakusten diren grafikoetan ikus daiteke ezen **gizonen eta emakumeen partaidetza-mailak oso orekatuak izan direla**, puntu baten aldea baino ez baitago bien artean.




### 3.1.2. Histograma

Parte-hartzaileen adinari dagokionez, hurrengo grafikoan islatzen da adin-tarteek prozesuan izan duten eragina, entitate parte-hartzaileak bereizita. Oro har, **partaidetza-prozesuan eragin handiena izan duen adin-tartea 65 urtetik gorako pertsonena izan da.**

Hala ere, **online partaidetzari** dagokionez, ikus daiteke joera aldatu egiten dela, eta **30-40 urteko adin-tarteak** izan du presentziarik handiena.


Aitzitik, **partaidetza presentzialari** dagokionez, ikusten da **adin-tarterik aktiboenak 50 urtetik gorakoak izan direla.**




### 3.1.3. Partaidetza, eremu geografikoaren arabera

**Partaidetza, eremu geografikoaren arabera** aztertuta, lortutako datuek adierazten dute Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuaren 1. fasean pisu handiena duen herria berriz ere **Donostia** dela, alde handiarekin, % **33,3**raino iristen baita.


#### Partaidetza, guztira



#### Online



#### Presentziala




### 3.1.4 Emaitzak

Onartutako **1.880 galde-sorta/txartel handien** zenbaketatik, guztira **herritarren 1.897 proposamen bildu dira**. Azterketa teknikoa egin ondoren, **880 onartu** dira, eta **1.017 baztertu**, arrazoi hauetakoren batengatik:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena ez izatea.
- Interes publiko orokorrari men ez egitea.
- Ingurumenari edo beste lurralde interes batzuei kalte nabarmena eragitea.
- Balorazioa eragozten duten termino orokorretan planteatuta egotea.
- Proposamena ez ulertzea.
- Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesura bideratutako aurrekontua 200.000 eurotik gorakoa izatea.
- Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuan ezarritako 10 eremuen barruan ez egotea.
- Proposamen bat ez izatea. Iritzi/gogoeta pertsonal bat izatea.
- Foru araudiaren aurka joatea.
- Inbertsiorik ez ekartzea.

Ondoren, onartutako proposamenak sailkatu dira lantzen duten gaiaren arabera. Horrela, ikus daiteke nola bildutako ekarpenak herritarren kezken isla diren, zeintzuk indar handiagoz fokalizatzen baitira eremu hauetan: **mugikortasuna eta garraioa (218)**, **bide azpiegiturak (163)**, **eta gizarte politikak (158)**, eta, ondoren, **ingurumena, eta landa eremua eta mendiak**, hurrenez hurren.

## Ekarpenak, eremu tematikoaren arabera



Jarraian, Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuaren lehen fasean jasotako ekarpenen laburpena ageri da, GFAko gaiaren gaineko zuzendaritza eskudunen arabera sailkatuta eta taldekatuta, ondoren haien balorazio ekonomikoa eta teknikoa egiteko.

### Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia

Norabide horretan bildutako herritarren eskariak hauen ingurukoak dira: lurraldean **bidegorri-tarte berriak** sortzea; egungo **ibilbideak** mugikortasun jasangarriaren alde **zabaltu** beharra; **dauden ibilbideak eguneratzea**, zenbait elementutaz hornituz, hala nola komunak eta bizikletak konpontzeko zutabeak; **garraio publikoko zerbitzua**, **linea erabilgarriak** eta eskainitako **ordutegiak indartu** beharra; 3 lurraldeetako **garraio publikoko txartelak bateratzea eta digitalizatzea**; eta **bide berdeak** mantentzea eta egokitzea, erabiltzaileek segurtasun baldintzetan erabil ditzaten.

### Errepideetako Zuzendaritza Nagusia

Errepideetako Zuzendaritza Nagusiari egindako eskaerei dagokienez, gehien erabili direnak hauek izan dira: **bide-zoruak egokitzea**, **autobideko tarifak kentzea**, eta **konexioak eta sarbideak hobetzea**.

Horiez gain, proposatzen da, orobat, **bigarren mailako bideen sareari espaloi eta bazterbide nahikoak jartzea**, ibilgailuen zirkulazioak sortutako kutsadura akustikoaren maila kudeatzea **pantaila akustikoak** instalatuz, eta foru errepideen sarea hobetzea **segurtasun elementu berriak aldatuz eta instalatuz**, besteak beste.

### **Ingurumen Zuzendaritza Nagusia** \_\_\_\_\_

Ingurumen Zuzendaritza Nagusian bildu diren proposamenek alderdi hauek aipatzen dituzte: **hondakin kudeaketaren** maila guztietako **hobekuntza** sakontzen jarraitu beharra, **energia berriztagarrietan** inbertitzeko nahia, eta, **ibaiak, hondartzak eta itsasertzak garbiketa-maila onenetan** mantentzearen garrantzia, batez ere.

### **Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza Nagusia** \_\_\_\_\_

Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza Nagusian gehien errepikatzen diren eskaerak hauek dira: **egoitza-instalazio berriak sortzea** kolektibo desberdinentzat, mendekotasuna duten pertsonen eta familia-eredu berriei ematen zaizkien **zenbatekoak hobetzea**, herritarrei **informazio gehiago eman eta izapide burokratikoak arindu** beharra, eta **dibertsitate funtzionala edo kognitiboa duten pertsonentzako lanpostuak** sortzea.

### **Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia** \_\_\_\_\_

Nekazaritzari eta lurralde orekari dagokienez, eskatzen da **lan poltsa espezifiko bat landa-eremuetarako, ustategien modernizazioa eta digitalizazioa**, eta askotariko kanpainen bidez **tokiko produktua sustatzearen** garrantzia.

### **Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza Nagusia** \_\_\_\_\_

Zuzendaritza honi planteatutako proposamenek alderdi hauek aipatzen dituzte: **mendien kontserbazioaren eta lurraldea** bertako landareekin **basoberritzearen** garrantzia;

**bideak, bidezidorrak eta baso pistak garbitzea eta mantentzea; bai eta lurraldeko fauna eta flora zaintzea eta erregistratzea ere.**

### **Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia** —

Zuzendaritza honi dagokionez egindako ekarpenek alderdi hauek nabarmentzen dituzte: **egoitzen kudeaketa hobetu** beharra, langile espezializatu gehiagoz hornituz erabiltzaileen beharrei erantzuteko; kolektibo horri zuzendutako **programazio okupazionala** hobetzearen egokitasuna; **etxeko laguntza indartzea**; **animaliekiko programa terapeutikoak** sortzea; eta **informazio eta jarraipen zerbitzu** baten beharra mendeko pertsonak ardurapean dituzten familien kudeaketa burokratikoa errazteko.

### **Kultura Zuzendaritza Nagusia** \_\_\_\_\_

Kultura Zuzendaritza Nagusiari hainbat eskaera helarazi zaizkio **dagoen kultura-eskaintza zabaltzeko, bertako talentua bultzatzeko**, Gipuzkoako **ondarea kontserbatzeko, kultura-instalazio berriak sortzeko edo gaitzeko**, eta kultura oro har bultzatzeko, gai horri zuzendutako **kontsumo-bonuen** bidez.

### **Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia** \_\_\_\_\_

**50 urtetik gorakoentzako enplegua** da babes handiena lortu duen proposamena Ekonomia Sustapenaren gaiari dagokionez, eta, ondoren, **enplegua** sortzea **gazteentzat eta dibertsitatea duten pertsonentzat**, eta **Lab/Hub bat sortzeko** aukera, desberdinen artean sinergiak eta enplegu aukerak sortu ahal izateko.

### **Kirol Zuzendaritza Nagusia** \_\_\_\_\_

Zuzendaritza honi egindako eskaerek ardatz dituzte alderdi hauek: **kirol instalazio berriak**, hainbat diziplina praktikatzeko; egungo **kirol eskaintza handitzea**; eta lurraldeko **instalazioetara sartzeko txartelak bateratzea**.

## Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusia \_\_\_\_\_

Arlo horretan presentzia handiena izan duten alderdiak hauek izan dira: **laguntza psikologikoko zerbitzu baten** beharra, **aterpetxeak** sortzea, **konpainia-zerbitzu** bat egotea, eta kolektibo horiek zaintzearen garrantzia indartuko duten **kontzientziazio kanpainak** egitea.

## Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa \_\_\_\_\_

Berdintasunaren aldeko **kontzientziazio eta dibulgazio kanpainak** dira eremu horretan traktore gisa aipatzen direnak.

## Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia \_\_\_\_\_

Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeko, eskatzen da **doako irakaskuntza** bat, **kultura-programazioa** euskaraz egitea, **zuzeneko laguntzak bideratzea beren jarduera euskaraz egiten duten klubei**, eta **bide berriak** aurkitu beharra eguneroko bizitzako **alderdi/erregistro desberdinetan euskaraz jardun ahal izateko**.

## Landa Udalerrien Garapenerako Zuzendaritza Nagusia \_\_\_\_\_

Landa Udalerrien Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak eskaera nagusi hauek biltzen ditu: **landa-bizimodu** bat sustatzea, **landa-bideak eta -bidezidorrak egokitu** beharra, **zuntz optikoa** instalatzea, eta **garraio publikoarekin lotura hobe**a izatea.

## Gazteria Zuzendaritza Nagusia \_\_\_\_\_

Gazteria Zuzendaritza Nagusiari egindako eskaerak izan dira **gazteei zuzendutako kultura-programazioa**, **sozializatzeko guneak** sortzea, **prebentzio kanpainak** adikzioei dagokienez, eta **udalekuetan plaza gehiago** jartzeko aukera.



## Turismo Zuzendaritza Nagusia \_\_\_\_\_

Eskarietan jarritako helburuak dira **Gipuzkoako enklabeak sustatzea** eta **landaturismoa**.

## Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusia \_\_\_\_\_

Proposamenek ardatz dituzte **migratzaileen integrazioa** eta **aholkularitza** hainbat kanalen bidez.

## Berrikuntzako eta Internazionalizazioko Zuzendaritza Nagusia \_\_\_\_\_

**Denda eta lokalen digitalizazioa** eskatzen zaio Berrikuntzako eta Internazionalizazioko Zuzendaritza Nagusiari.

## 4. KONKLUSIOAK

Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuaren esparruan, amaitutzat ematen da lehen fasea, non kudeatu eta aztertu diren parte hartzeko epearen barruan bildutako proposamenak.

Aurreko aldietan bezala, herritarrek beren iritzia eman dute indartu behar diren alderdiei buruz, Gipuzkoako lurraldeak bizi duen errealitateari erantzunik onena emateko, eta Aurrekontu Irekiak erreferente on bat da Gipuzkoako gizartearen iritzia jasotzeko.

Orain, Aldundiko zuzendaritzak lanean ari dira proposamen horiekin, proiektu bihurtu ahal izan daitezen, hauta baitaitezke proiektuko partaidetzaren hurrengo fasean, zeinean herritarrek berriro parte hartu ahal izango baitute, eta identifikatuen sentitzen diren proiektuak hautatu ahal izango baitituzte, azkenean sartuko direnak 2022-2023 ekitaldiko aurrekontuak egitean.

Aurrekontu Irekiak 2022-2023 prozesuaren garapenari buruzko informazio eta xehetasun guztiak hemendik jarraitu ahal izango dira: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza>



GIPUZKOA  
**ETORKIZUNA**  
**ORAIN**